



Gregorio Alboren gorpuzkiak berreskuratu dituzte senideek. NAFARROAKO GOBERNUA

Gregorio Albo Urcelayren senideek haren gorpuzkiak jaso zituzten atzo Paternaingo hobiaren inguruan egindako ekitaldian. Dirudienez, 36ko gerra hasieran atxilotu eta fusilatu zuten.

Gregorio Alboren senideek haren gorpuzkiak jaso dituzte, Paternaingo hobian aurkituak

GARA | PATERNAIN

Frankismoaren biktima izandako Gregorio Albo Urcelayren gorpuzkiak jaso zituen atzo haren senideek; besteak beste, Manuel semeak eta Manu Ibero bilobak. Joan den ekainean Nafarroako Memoriaren Institutuaren desobiratzeen programaren baitan berreskuratu ziren hamar pertsonaren gorpuzki Paternaingo hobian.

Nafarroako Gobernuak bere garaian jakinarazi zuenez, litekeena da gorpuak gertuko kartzeletan zituzten zibilenak izatea. Izan ere, jakina da Paternainen 1936ko udatik 1937ko lehen hilabeteetara bitartean fusilamendu eta lurperatze klandestinoak jazo zirela.

Gorpuak aurkitu eta lurpetik atera ondoren, prozesu bat hasi zen Nasertic-eko laborategi genetikoan, horien DNA se-

FUSILATUA

1936ko abuztuaren 26tik 29ra bitartean, Iruñeko geltokiko trenbideetako zenbait langile atxilotu zituzten, baina ez zituzten erregistroan sartu eta horrek gerora egin zen krimena erraztu zuen.

nide posibleekin alderatzeko. Oraingoan, Gregorio Albo da Nasertic-en identifikatu ahal izan den lehen biktima. Hala ere, haren atxiloteta eta hilketari buruzko xehetasun askorik ez dago oraindik.

Trenbide sareko langilea
 Gregorio Albo 1905ean jaio zen Calzada de Bureba herrixkan (Burgos); trenbideetako langilea zen eta Alderdi Komunistaren (PC) jarraitzailea zen. Pilar Trascasarekin ezkondua zegoen, eta harekin alaba eta seme bat izan zituen.

Nafarroako Gobernuak dioenez, 1936ko abuztuaren 26tik 29ra bitartean, Iruñeko geltokiko trenbideetako zenbait langile atxilotu zituzten, baina ez zituzten bertako espetxean sartu. Atxiloteta horiek ez ziren erregistratu eta horrek gerora egin zen krimena erraztu zuen.

«Irekita dauden zauriak ixtea» Ana Ollo Herritarrekiko Harremanetarako sailburua izan zen atzoko ekitaldiaren burua. Zizurko Udaleko eta Paternaingo Kontzejuko tokiko agintariek, elkarte memoria-listetako kideek eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek ere parte hartu zuten gorpuzkiak berreskuratzeko ekitaldian.

Hitza hartu zuenean, sailburuak Gobernuak oroimenerako politika publikoekin duen konpromisoa azpimarratu zuen, eta gogorarazi zuen bilatzen jarraitzen dutela, lanean jarraitzen dutela; «sine-tsirik memoria zuzen batetik, biktimen eskubidetik, egiatik, justiziatik eta erreparaziotik, oraindik irekita dauden zauri horiek ixtea lortuko dugula», adierazi zuen.

Gaur egun, senide gehiagorekin harremanetan jartzeko lanean ari dira, identifikazio berriak ahalbidetuko dituzten erkaketa genetikoak osatu ahal izateko. Sortu zenetik, 33 dira DNA Bankuak identifikatutako pertsonak, eta 323, irekitako espedienteak.